

HASIERA

HONI BURUZ

KARRAJUA.ORG

SARTU

**16** | Mar  
2010

10:07

benito

Hasiera

## Akatsak detektatzeko "makinan" aurrerapausoak

Lotura

Akatsak detektatzeko "makinan" aurrerapausoak



IXA taldeko Larraitz Uriak bere **doktore-tesian** (pdf) euskarazko erroreen tratamendu automatikorako ekarpenak aurkeztu ditu. Errore eta desbideratze kontzeptuak bereiztu ditu, honela:

*Euskara estandarrari dagozkion gramatika-arauak betetzen ez dituzten egitura erroredunak hartzen ditugu guk erroretzat; eta desbideratze esaten diegu gramatikalak izan arren testuinguru jakin batean desegokiak diren egiturei. Desbideratzeen barruan sartzen ditugu estilo kontu orokorrak, aldaki dialektalen erabilera edota erregistroaren egokitasuna.*

Oinarri horretatik abiatuta bi datu-base desberdin osatzen hasi dira, eta hortik bi aplikazio-bide desberdin jorratu nahi dira: erroreen tratamendu automatikorako tresnak batetik, eta hizkuntzaren ikas-irakaskuntzarako baliagarriak izan daitezkeen tresnak bestetik. Bigarren bide horri atea irekitzea da Uriaren ekarpenetako bat.

Ikerketa-ildo honek zer ekarriko adi egongo gara. Edonola ere, erroreez ari garela **HEOKen pasarte hau** datorkit gogora:

*Tarteko hizkuntzaren ildotik ere ikusi eta aztertu behar dira ikasleak egiten dituzten erroreak, xede-hizkuntzaren sistema barneratzen ari den adierazpen gisa, eta ez ikaskuntza ezaren adierazle*

Edo lehengo astean ikastaro batean behin eta berriz errepikatu diguten kontzeptu hau: *Errorea* eta *errakuntza* ondo bereiztu behar dira, jakin arren egiten dena, eta jakin ez egiteagatik gertatzen dena.

Balorazioa:

Bilatu

Bilatu gune honetan:

BILATU



Sartu zure eposta helbidea hemen:

Harpidetu

FeedBurner

**Atoan** on Facebook

56 people like **Atoan**.

Haitz Biribil	Alazne	Andoni
Jorge	Nai	Xabier

Facebook social plugin

Azken iruzkinak

**A! Batek erran du!!** duela

Baloratu:

Bozkarik ez oraindik

Zure balorazioa: None



didaktika errorea teknologia

## Bidali iruzkin berria

Zure izena: \*

Helb. elek: \*

The content of this field is kept private and will not be shown publicly.

Hasierako orria:

Gaia:

Iruzkina: \*

[Enable rich-text](#)

SARRERAKO FORMATUA




## Tags for Akatsak detektatzeko "makinan" aurrerapausoak

### Etiketak

[didaktika](#)
[errorea](#)
[teknologia](#)

egun 1 15 ordu

**Kenduta** duela 2 egun 19

ordu

**HENAC** duela 2 egun 23

ordu

**Bai** duela 5 aste egun 1

**HABE** duela 5 aste 4 egun

**HABE ere lanean** duela 5  
aste 5 egun

**Bai eta ez** duela 6 aste 6  
egun

**Eskerrik asko** duela 7 aste  
4 egun

**Montxoko da bere egilea  
eta**  
duela 7 aste 4 egun

**Creative Commons umeei  
azalduta**  
duela 12 aste 3 egun


## Etiketa-lainoa

bideoa **didaktika** euskaltegiak **euskara** habe  
**hizkuntza** hizkuntzak ikaskuntza **ikasleak**  
ikastea **internet** irakasleak **normalizazioa**  
prestakuntza **teknologia**

more tags



Ikusi estatistikak

## Saioaren hasiera

Erabiltzaile izena: \*

Pasahitza: \*

**SARTU**

Eskatu pasahitz berria